| 40 Dekretua<br><br>Decreto 40 | 2017/10/19<br><br>19/10/2017 | Ontzat emango da AUMren 2017ko ekitaldirako Lan Eskeintza Publikoa.<br><br>En relación a la aprobación de la Oferta de empleo Público de AUM para el Ejercicio 2017 |
| 41 Dekretua<br><br>Decreto 41 | 2017/10/19<br><br>19/10/2017 | Eneko Axpe Prego jaunari aldi baterako lan-kontratua egiteari buruzkoa, Hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzuko Peoia moduan.<br><br>En relación a la contratación laboral temporal de D. Eneko Axpe Prego como Peón del Servicio de Recogida de R.S.U |
| 42 Dekretua<br><br>Decreto 42 | 2017/10/19<br><br>19/10/2017 | "La Caixa" deritzon Banku Fundazioak egin duen proposamena onesteko. Proposamenaren xedea: "AUKERA BERDINAK DITUZTEN ADINGABEAK' IZENEKO PROGRAMA BURUTZE ALDERA, CAIXA D'ESTALVIS Y PENSIONS DE BARCELONA "LA CAIXA" DERITZON BANKU FUNDAZIOAREN ETA ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA" sinatzea.<br><br>Aprobar la propuesta formulada por la Fundación Bancaria Caixa d'Estalvis y Pensions de Barcelona "la Caixa" para la firma de un "CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA FUNDACIÓN BANCARIA CAIXA D'ESTALVIS Y PENSIONS DE BARCELONA "LA CAIXA" Y ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA PARA LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA "MENORES CON IGUALES OPORTUNIDADES" |
| 43 Dekretua<br><br>Decreto 43 | 2017/10/26<br><br>26/10/2017 | 14517548C NAN zko. Aurkeztutako erreklamazioa onartzea (Betearazpideko Zergabilketa)<br><br>En relación a la aprobación de la reclamación presentada por DNI Nº 14517548C (Recaudación ejecutiva) |
| 44 Dekretua<br><br>Decreto 44 | 2017/10/27<br><br>27/10/2017 | Jon Moreno Elexpe jaunari aldi baterako lan-kontratua egiteari buruzkoa, Hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzuko Gidari-Peoia moduan.<br>Oscar Bárbara Burgos jaunari aldi baterako lan-kontratua egiteari buruzkoa, Hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzuko Gidari-Peoia moduan.<br><br>En relación a la contratación laboral temporal de D. Jon Moreno Elexpe como Conductor-Peón del Servicio de Recogida de R.S.U<br>En relación a la contratación laboral temporal de D. Oscar Bárabara Burgos como Conductor-Peón del Servicio de Recogida de R.S.U |
| 45 Dekretua<br><br>Decreto 45 | 2017/10/27<br><br>27/10/2017 | Kontratu txikiaren onestea. "ARRATIAKO MANKOMUNITATEKO UDALETAKO ARGITERIA PUBLIKOAREN MANTENTZE- ETA EGOKITZE-LANEN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURAN AHOLKULARITZA TEKNIKOA"<br><br>Aprobación Contrato Menor. ASESORAMIENTO TÉCNICO EN EL PROCESO DE ADJUDICACIÓN |

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

| | | |
|---|---|---|
| | | DEL CONTRATO PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO Y ADECUACIÓN DEL ALUMBRADO PÚBLICO DE LOS AYUNTAMIENTOS MANCOMUNADOS DE ARRATIA |
| 46 Dekretua<br><br>Decreto 46 | 2017/11/02<br><br>02/11/2017 | Azaroaren 25eko Adierazpen Instituzionalaren onestea. (Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna)<br><br>Aprobación Declaración Institucional de 25 de noviembre. (Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres) |
| 47 Dekretua<br><br>Decreto 47 | 2017/11/03<br><br>03/11/2017 | Kontratu txikiaren onestea. "ARRATIAKO GAZTEEENTZAT TROKELGILE-DAITZAILE IKASTAROA"<br><br>Aprobación Contrato Menor. "CURSO DE AJUSTADOR-MATRICERO PARA JÓVENES DE ARRATIA." |
| 48 Dekretua<br><br>Decreto 48 | 2017/11/13<br><br>13/11/2017 | 45628972P NAN zko. Aurkeztutako erreklamazioa onartzea (Betearazpideko Zergabilketa)<br><br>En relación a la aprobación de la reclamación presentada por DNI Nº 45628972P (Recaudación ejecutiva) |
| 49 Dekretua<br><br>Decreto 49 | 2017/11/17<br><br>17/11/2017 | Jon Moreno Elexpe jaunari aldi baterako lan-kontratua egiteari buruzkoa, Hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzuko Gidari-Peoia moduan.<br><br>En relación a la contratación laboral temporal de D. Jon Moreno Elexpe como Conductor-Peón del Servicio de Recogida de R.S.U |
| 50 Dekretua<br><br>Decreto 50 | 2017/11/17<br><br>17/11/2017 | Kreditu Gehigarriak kreditu-aldaketari buruzko 1/2017-7AUM expedientea.<br><br>En relación al expediente nº 1/2017-7AUM de Modificación de Créditos mendiante Créditos Adicionales. |
| 51 Dekretua<br><br>Decreto 51 | 2017/11/21<br><br>21/11/2017 | "BELDUR BARIK – 2017" Lehiaketako Sariak.<br><br>En relación a los premios del Concurso "BELDUR BARIK - 2017" |

AUMko Gobernu Batzarraren kideek goian azaldutako guztiaren berri izan dute.-"

Los Vocales de la Junta de Gobierno de AUM quedaron debidamente enterados de todo lo anteriormente expuesto.-"

## 9.- BESTELAKO INFORMAZIOAK

"Gai-zerrendako puntu honetan inork ez du ezer esan.-"

## 9º.- INFORMACIONES DIVERSAS

"En éste punto de orden del día no se produce ninguna intervención.-"

## 10.- RUEGOS Y PREGUNTAS

"Gai-zerrendako puntu honetan inork ez du ezer esan.-"

## 10º.- RUEGOS Y PREGUNTAS

"En éste punto de orden del día no se produce ninguna intervención.-"

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

**11.- GAIA: ERAKUNDEAREN ADIERAZPENA ABENDUAREN 3ARI, EUSKERAREN EGUNARI BURUZ.-**

"Jarraian Presidente jaunak hitz egin du eta Gobernu Batzordeko kideei jakinarazi die ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK, abenduaren 3an ospatuko den "Euskeraren Egunarekin" bat, erakundearen ondoko adierazpena onestea proposatu duela:

***"Euskara auzolana***
***Euskarak lankide nahi eta behar gaitu, urtean 365 egunez***

*Euskara urtean egun batez dugu ospakizunerako gai, eta 365 egunez langai. Elkarlanerako gai. Adostasunerako gai. Eta ospakizun eguna baliatu nahi dugu, hain zuzen, ilusioaren hauspoa haize berriz betetzeko. Indar berriez sendotzeko denon eginahala. Hori behar baitu euskarak, hori behar baitugu euskara guztion ezpainetan, kaleetan, etxeetan, ziberespazioan, lantokietan, pantailetan, paperetan nahi dugunok: ilusioa. Eta elkarlana. Auzolana.*

*Ilusioa eta elkarlana, inork garai likidotzat definitu dituen gure gaurko hauek euskaltzaletasunez borborka jartzeko.*

*Ilusioa eta elkarlana, euskararen lurralde eta esparru juridiko guztietan ahalik eta erarik bateratuenean gure hizkuntzarentzat etorkizun bizia irabazteko. Elkarrenganako adeitasunez. Elkartasunez.*

*Ugari izan dira eta dira han-hemengo herritarrek euskara eskuratzeko eta lantzeko egindako ahaleginak. Hor dugu euskarak elikagai ezinbestekoa duen euskaldun berri andana itzela. Hor ditugu seme-alabak euskaraz ikas dezaten nahi izan duten guraso erdaldunak. Hor ditugu dakiten euskara ezpainetan dantzatzen ahalegintzen direnak…*

**11º.- ASUNTO: DECLARACIÓN INSTITUCIONAL RELATIVA AL DÍA 3 DE DICIEMBRE – DÍA DEL EUSKERA.**

"Acto seguido toma la palabra el Sr. Presidente quien informa a los Vocales de la Junta de Gobierno que ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA que coincidiendo con la celebración el próximo día 3 de diciembre del "Día del Euskera", propone la aprobación de la siguiente declaración institucional:

***El euskera, tarea común***
***El euskera quiere y necesita que colaboremos los 365 días del año***

*El euskera es motivo de celebración un día al año, y tarea común durante 365 días. Y nos proponemos aprovechar ese día de celebración, precisamente, para darle a respirar un aire nuevo. Para reforzar con nuevo impulso el esfuerzo común. Porque eso es lo que necesita el euskera, y eso es también lo que necesitamos quienes deseamos ver al euskera en los labios de todas las personas, en las calles, en los hogares, en el ciberspacio, en los lugares de trabajo, en las pantallas, en los papeles: ilusión. Y colaboración. Auzolana, trabajo en común.*

*Ilusión y colaboración, para que nuestro amor por el euskera sea capaz de poner en ebullición estos tiempos que alguien ha definido como líquidos.*

*Ilusión y colaboración, para ganar, de la forma más coordinada posible, un futuro de vitalidad para nuestra lengua en todos los territorios y ámbitos jurídicos. Con mutua afabilidad. Con solidaridad.*

*Han sido y son innumerables los esfuerzos realizados por la ciudadanía de unos y otros territorios para aprender euskera y profundizar en su conocimiento. Así lo atestigua la ingente cantidad de nuevas y nuevos vascoparlantes, imprescindible sustento del euskera. Así lo atestiguan los padres y madres no vascohablantes que se han propuesto que sus hijos e hijas estudien en esa lengua. Así lo atestiguan quienes se esfuerzan en llevar a sus labios el euskera que saben, sea cual sea su*

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

*Zenbat halako azken hamarkadotan: zenbat ahalegin pertsonal zein kolektibo, publiko zein herri ekimenekoak. Horiei guztiei zor diegu euskarak bizi duen errealitatea.*

*Orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskararen erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi, ezagutzaren handitzearekin batera euskararen aldeko hizkuntza ohituren aldaketa sakona gauzatu dadin. Mingainak dantzan jartzeko premia dugu, eta, bistan denez, mundu aldakor honetan, kantu eta kontu berriak behar ditugu horretarako.*

***Bide berriak, bide guztiak***

*Hala nahi zuen jokatu Lizardi handiak literaturgintzan. Hala behar du euskarak. Halaxe behar du euskalgintzak ere.*

*Emankor gertatu dira, bistan denez, ibilitako bide asko. Eta elkarlana da emankortasun hori auzolanean areagotzeko giltzarria.*

*Une aproposa da administrazioek eta herri ekimenak auzolanean bide berriak zabaldu, eta gehiengo soziala euskararen alde egotetik euskararen alde egitera eramateko. Euskara erabiltzera eramateko.*

*Une aproposa da euskararen lurralde eta eremu guztietako herri aginteen arteko lankidetza ere berrikuntzaren bidetik sendotzeko.*

*Erabileraren mesedetan.*

*Eta euskarak elkarlan horien guztien premia du. Ezinbestez.*

*Ideien konfrontazioari uko egin gabe, irtenbideak adostuz, bakoitzaren eginkizun eta erantzukizunekiko errespetuz, elkarrenganako leialtasunez, eta denok norabide berean bultzatuz.*

*Bakarka ezinezkoa da. Auzolanean, guztiz ilusionagarria.*

*nivel…*

*Cuántos ejemplos hemos visto en las últimas décadas: cuánto esfuerzo personal y colectivo, tanto público como de iniciativa ciudadana. A todos ellos les debemos la realidad que vive el euskera.*

*Ahora, y en los próximos años, nuestra tarea principal consiste en acrecentar sin cesar y con viveza el uso del euskera, de manera que, paralelamente al aumento de su conocimiento, se opere una transformación profunda y positiva para el euskera de los hábitos lingüísticos. Debemos hacer que el euskera asome a nuestros labios, y para ello, obviamente, deberemos actuar con espíritu innovador.*

***Nuevos caminos, todos los caminos***

*Eso quería el gran Lizardi en su literatura. Eso necesita el euskera. Y eso necesita también la euskalgintza, es decir, el conjunto de agentes que trabajan por el euskera.*

*A la vista está que muchos de los caminos recorridos han resultado fructíferos. Y la colaboración es esencial para que el trabajo común gane en eficacia.*

*Vivimos un momento idóneo para que las administraciones y la iniciativa ciudadana abran nuevas vías de colaboración en la tarea común, de manera que la mayoría social pase de estar por el euskera a actuar por el euskera. A dar el paso de usar el euskera.*

*Vivimos un momento idóneo para fortalecer, a través de la innovación, la colaboración entre los poderes públicos de todos los territorios y ámbitos del euskera. En pro de su uso.*

*Y el euskera necesita de toda esa colaboración. Le es imprescindible.*

*Sin renunciar a la confrontación de ideas, acordando soluciones, respetando las competencias y responsabilidades de cada cual, con lealtad recíproca, y dirigiendo todos los esfuerzos en la misma dirección.*

*Actuando aisladamente, es imposible. En auzolana, como trabajo común, absolutamente ilusionante.*

***365 días***

*Un solo músico o una sola música, no*

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

***365 egun***

*Musikari bakar batek ezin du orkestra oso baten doinua aldatu, zuzendariaren eta gainontzeko musikarien laguntza gabe. Euskal hiztun bakar batek nekez aldatuko ditu hizkuntza ohiturak, gizartearen babesik izan ezean.*

*Hizkuntza ohiturak aldatzeko bide luzean, euskararen aldeko gehiengo soziala aktibatu behar: euskararen lurralde guztietako administrazioak zein herri ekimena. Lurralde eta eremu guztietako erakundeak. Gizarte ekimeneko euskalgintzako taldeak zein bestelako esparruetakoak. Euskaldun osoak, euskaldun hartzaileak eta erdaldunak.*

*Malgutasunez. Herri bakoitzaren errealitatera egokituz. Tokiko eragileekin urratsak adostuz. Parte hartzaile guztiak ahaldunduz.*

*Euskaltzaletasunaren sua indartuz hala Angelun nola Andoainen, Barkoxen zein Barakaldon, Eltziegon eta Erronkarin.*

*Auzolana da bide bakarra. Hizkuntza ohituren aldaketa kolektiboa izanen da ala ez da izanen.*

*Euskararen Eguneko gure konpromisoa, datozen 365 egunotan izan dadin lan egitea. Auzolanean lankide zintzo.*

*Euskara auzolana baita."*

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Gobernu Batzordea arestian adierazi denaren jakinaren gainean geratu da eta eztabaidatu ostean, bertaratu diren kideen AHO BATEZ, hau erabaki du:

1.- Abenduaren 3an ospatuko den "Euskeraren Egunarekin" bat AUMen erakunde mailako adierazpena onestea, AUMeko Presidentziak proposatu dituen termino horietan.-"

*pueden cambiar el sonido de toda una orquesta, sin la ayuda de la dirección y de los demás músicos y músicas. Difícilmente podrá una sola persona vascohablante modificar los hábitos lingüísticos, sin contar con el apoyo del conjunto de la sociedad.*

*En el largo camino hacia la transformación de los hábitos lingüísticos, es preciso activar a la mayoría social favorable al euskera: tanto a las administraciones como a los agentes sociales de todos los territorios del euskera. A las organizaciones de todos los territorios y ámbitos del euskera. Tanto a los grupos de la euskalgintza de iniciativa ciudadana como a los de otros ámbitos. A las personas vascohablantes completos, a los vascohablantes pasivos y a quienes no conocen el euskera.*

*Con flexibilidad. Con capacidad de adaptación a la realidad de cada lugar. Acordando los pasos con los agentes locales. Empoderando a todas las personas que participen.*

*Avivando el fuego del euskera tanto en Angelu/Anglet como en Andoain, así en Barkoxe/Barcus como en Barakaldo, en Eltziego/Elciego y en Erronkari/ Roncal.*

*El único camino es auzolana, el trabajo en común. La transformación de los hábitos lingüísticos será una obra colectiva o no será.*

*Nuestro compromiso para el Día del Euskera es trabajar para que los 365 días siguientes también sean días del euskera. En leal colaboración.*

*Porque el euskera es una tarea común."*

La Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, quedó debidamente enterada de todo lo anteriormente expuesto y tras un debate, por UNANIMIDAD de los Vocales presentes, acordó:

1º.- Aprobar la Declaración Institucional de AUM coincidiendo con la celebración el próximo día 3 de diciembre del "Día del Euskera", en los términos propuestos por la Presidencia de AUM.-"

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

**12. - GAIA: ONESTEA, BIDEZKOA BADA, EUSKO JAURLARITZAREN LANDA ETA ITSAS INGURUNEKO ERAKUNDEAREN (HAZI), ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EVE) ETA AUM-REN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, ZEINAREN BITARTEZ ENERGIA-HELBURUETARAKO AUM-KO EUSKAL LANDA-EREMUAN BASOKO BIOMASA ERABILTZEA ETA ENERGIA-ERAGINKORTASUNA SUSTATUKO DIREN**

"Jarraian, presidente jaunak hartu du hitza, eta kideei adierazi die Energiaren Euskal Erakundeak AUMri jakinarazi diola Arratiako mankomunitateko udalen artean hitzarmenaren helburuak bultzatzeko, AUMk hitzarmena onetsi behar duela.

IKUSI DA 2017ko otsailaren 7an AUMko Iraunkortasun Arloak egindako txosten-proposamena, energia-helburuetarako landa-eremuan basoko biomasaren erabilera eta energia-eraginkortasuna sustatzeari buruzkoa.

IKUSI DIRA Eusko Jaurlaritzaren Landa eta Itsas Inguruneko Erakundearen (Hazi), Energiaren Euskal Erakundearen (Eve) eta AUMren artean sinatzeko lankidetza-hitzarmenaren proposamenaren artikuluak, AUMko udal-mugartean tokiko basoko baliabideen aprobetxamendua eta mota horretako biomasaren erabilera energetikoa sustatzearen gainekoa.

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Gobernu Batzarra arestian adierazi den horren guztiaren jakitun geratu da eta eztabaidatu eta gaia bozkatu ostean, bileran dauden mahaikideek AHO BATEZ hauxe erabaki dute:

1.- Onestea Eusko Jaurlaritzaren Landa eta Itsas Inguruneko Erakundearen (Hazi), Energiaren Euskal Erakundearen (Eve) eta AUMren arteko lankidetza-hitzarmena sinatzea, AUMko udal-

**12º.- ASUNTO: APROBACIÓN SI PROCEDE DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA CORPORACION DEL GOBIERNO VASCO PARA EL DESARROLLO DEL MEDIO RURAL Y MARINO (HAZI), EL ENTE VASCO DE LA ENERGÍA (EVE) Y AUM PARA PROMOVER LA EFICIENCIA ENERGÉTICA Y LA UTILIZACIÓN DE LA BIOMASA FORESTAL EN EL MEDIO RURAL VASCO CON FINES ENERGÉTICOS EN AUM.**

"Acto seguido toma la palabra el Sr. Presidente quien informa a los Vocales de que desde el Ente Vasco de la Energía han informado a AUM que para promover los objetivos del Convenio en los Ayuntamientos mancomunados de Arratia, dicho Convenio debe de ser aprobado igualmente por AUM.

VISTO el Informe-propuesta emitida con fecha 7 de febrero de 2017 por el Area de Sostenibilidad de AUM para promover la eficiencia energética y la utilización de la masa forestal en el medio rural con fines energéticos.

VISTO el articulado de la Propuesta de Convenio de Colaboración a firmar entre la Corporación del Gobierno Vasco para el desarrollo del medio rural y marino (HAZI); el Ente Vasco de la Energía (EVE) y AUM para fomentar el aprovechamiento del recurso forestal local y el uso energético de éste tipo de biomasa en los términos municipales de AUM.

La Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, quedó debidamente enterada de todo lo anteriormente expuesto, tras un debate, sometido el asunto a votación y por UNAMINIDAD de los Vocales presentes, acordó:

1º.- Aprobar la firma de un Convenio de Colaboración entre la Corporación del Gobierno Vasco para el desarrollo del medio rural y marino (HAZI); el Ente Vasco de la Energía (EVE) y AUM para fomentar el

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

mugartean tokiko basoko baliabideen aprobetxamendua eta mota horretako biomasaren erabilera energetikoa sustatzearen gainekoa.

a).- Balio katearen kudeaketan interesatuta dauden alde guztien jarduera koordinatzea, baso baliabidea dagoen lekutik energia termikoa kontsumitzen den guneetaraino.

b).- Tokian tokiko baso baliabidea erabiltzea.

c).- Basoen kudeaketa iraunkorra egitea.

d).- Toki mailan enplegua sortzea.

e).- Energia berriztagarrien garapen eta ezarpenean aurrera egitea, tokiko baso baliabidearen energia balorizazioaren bidez, energia eraginkortasuna bultzatuz, erabiltzen diren erregaien dibertsifikazioa areagotuz eta energia-kostuak murriztuz.

f).- Berotegi efektuko gasen igorpenen murrizketa lortzea.

g).- Erakundeen arteko lankidetza sustatzea.

2.- Lankidetza-hitzarmena betez, Arratiako Udalen Mankomunitateak honako betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

1. <u>Baso baliabidea aztertzeko eta kudeatzeko behar diren azterlanak egitea</u>
Tokiko baso baliabideak identifikatzen eta udalerrian baliabide horiek kudeatzeko dauden sistemak ezagutzen laguntzea. Horretarako, Arratiako Udalen Mankomunitatea osatzen duten Udalerriek honako konpromisoa hartzen du HAZIrekin:

➢ Eskura dituen mendi publiko, erabilera publikoen mendien kudeaketa plan, kartografia espezifiko eta abarrari buruzko informazioa eta datuak jakinaraztea edo ematea.

➢ HAZIk kartografiatutako baso bideak balidatzen laguntzea, eta benetan daudenekin kontrastea egitea.

➢ Baso Inbentarioan dagoen baso errealitatea eta benetan dagoenarekin

aprovechamiento del recurso forestal local y el uso energético de éste tipo de biomasa en los términos municipales de AUM, con los siguientes objetivos:

a).- Coordinar la actuación de todas las partes interesadas en la gestión de la cadena de valor desde donde se encuentra el recurso forestal hasta los puntos de consumo de la energía térmica.

b).- Utilizar un recurso comunitario como es el forestal.

c).- Mantener una gestión sostenible de los bosques.

d).- Generar empleo a nivel local.

e).- Avanzar en el desarrollo e implantación de las energías renovables mediante la valorización energética del recurso forestal local e impulsar la eficiencia energética, la diversificación de combustibles utilizados y la reducción de los costes energéticos.

f).- Conseguir la reducción de emisiones de los gases de efecto invernadero.

g).- Fomentar la colaboración institucional.

2º.- Que en virtud del Convenio de Colaboración, Arratiako Udalen Mankomunitatea asume las siguientes obligaciones:

1. <u>Elaboración de los estudios necesarios para el análisis y gestión del recurso forestal local</u>
Colaboración para identificar los recursos forestales locales, los sistemas de gestión actuales de los mismos en el municipio, para lo que los Ayuntamientos integrantes de Arratiako Udalen Mankomunitatea se comprometerán con HAZI a:

➢ Facilitar toda la información en su poder relativa a la gestión de los Montes Públicos. Plan de Gestión de los Montes de Utilidad Pública, cartografía específica, etc…

➢ Ayudar en la validación de los viales forestales cartografiados por HAZI, contrastándolos con los realmente existentes.

➢ Acompañar en el proceso de contraste entre la realidad forestal reflejada

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

kontraste prozesuan laguntzea.

➢ Biomasaren inguruko logistika, bihurketa eta biltegiratzeari begira, gune egokiena bilatu eta aukeratzen lankidetzan aritzea.

2. <u>Energia premiak eta instalazio egokienak ezagutzeko aurretiazko azterlan zehatzak egitea</u>

Arratiako Udalen Mankomunitatea osatzen duten Udalerriek aurretiazko energia azterlana(k) egiteko behar den informazio guztia emango dio EEEri, eta beraz, honako hauek egiteko konpromiso hau hartzen du:

- Udal eraikinen inbentarioa egitea, tipologia eta erabileraren arabera.
- Eraikinak identifikatzea udal kale izendegian.
- Behar izanez gero, egungo instalazioen kokalekuen planoak ematea.
- Energia kontsumo errealei buruzko informazioa bidaltzea (azken bi urte osoei dagozkien energia fakturak).
-
- Hautatuko diren kontsumo zentroetara "in situ" bisitak egiten laguntzea.
- Hala badagokio, galdara-gela(k) eta erregaia biltegiratzeko gunea(k) kokatzeko lekurik egokienak erabakitzea edo aukeratzea.
- Udal energia plangintza egiteko informazio bilera batean parte hartzea, EEErekin batera.

3. <u>Konponbide tekniko globala zehaztea eta finantzatzeko bideak erabakitzea</u>

EEE-HAZIk aztertutako alternatibak eta proposatu dituzten konponbideak jasotzen dituen txostena aurkeztu ondoren, Arratiako Udalen Mankomunitatea osatzen duten Udalerriek konponbide horiek aztertzeaz gain, irtenbide tekniko globala ezartzeko urratsak egingo ditu eta hura finantzatzeko bide egokiena(k) zehaztuko d(it)u, HAZIren eta EEEren aholkuez

en el Inventario Forestal y la realmente existente.

➢ Colaborar para la determinación de la ubicación óptima de una zona dedicada a la logística, transformación y almacenamiento de la biomasa.

2. <u>Elaboración de los estudios previos precisos para conocer las necesidades energéticas y las instalaciones más idóneas</u>

Los Ayuntamientos integrantes de Arratiako Udalen Mankomunitatea facilitarán al EVE toda aquella información que sea necesaria para la elaboración del / de los análisis previos energéticos y, por lo tanto, se comprometerá a:

- Inventariar los edificios municipales, por tipología y uso.
- Identificar los edificios en el callejero municipal.
- Facilitar, si fuera necesario, planos de ubicación de las instalaciones actuales.
- Enviar la información sobre consumos de energía reales (facturas energéticas de los 2 últimos años completos).
- Acompañar en la realización de visitas "in situ" a los centros de consumo seleccionados.
- Determinar, si procede, la ubicación más idónea para la nueva/s sala/s de calderas y silo/s de almacenamiento del combustible.
- Participar en una reunión informativa, junto con EVE, sobre la planificación energética municipal.

3. <u>Concreción de la solución técnica global y determinación de los mecanismos de financiación</u>

Tras la presentación por parte de HAZI y EVE del informe que recoja las alternativas analizadas y las soluciones propuestas, los Ayuntamientos integrantes de Arratiako Udalen Mankomunitatea analizarán dichas soluciones, realizarán los pasos oportunos para implementar la solución técnica global y determinará la/s vía/s más apropiada/s para la financiación de la misma con el asesoramiento de HAZI y EVE.

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

baliaturik.

3.- Hitzarmena indarrean egongo da honako epealdi honetan: sinatzen den egunetik Arratiako Udalen Mankomunitateari baso eta energiaren inguruko azterketak edo azterlanak eman arte, aldeen artean bestelako akordioren bat izan ezik edo haietako batek bertan behera uzten ez badu, 30 egun lehenago, gutxienez, adierazita.

4.- Hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak gauzatzeari begira, alde bakoitzak izango dituen gastuak bere kontura joango dira.

5.- Hitzarmena garatu eta ondo betetzeko, AUMko ordezkariak izendatu dira Jarraipen Batzordean parte hartzeko: Iñaki Barrenetxea Iriondo jauna eta Aitor Uriguen Rueda jauna.

6.- Erabaki honen berri emango zaio, ziurtagiri bitartez, Energiaren Euskal Erakundeari, dagozkion ondorioak izan ditzan.-"

3º.- El convenio permanecerá en vigor desde su firma hasta la entrega de los análisis forestales y energéticos a Arratiako Udalen Mankomunitatea, siempre que no medie acuerdo entre las partes o renuncia expresa de alguna de ellas con una antelación mínima de 30 días.

4º.- Los gastos en que incurra cada una de las partes, en virtud de las obligaciones asumidas en el Convenio, serán abonados por su cuenta.

5º.- Que para el desarrollo y buen fin de este convenio, se designan representantes de AUM en la Comisión de Seguimiento, a D. Iñaki Barrenetxea Iriondo y a D. Aitor Uriguen Rueda.

6º.- Dése cuenta certificada del presente Acuerdo al Ente Vasco de la Energía, todo ello a los efectos oportunos.-"

**13.- GAIA: ONESTEA, BIDEZKOA BADA, BISCAYTIK PROIEKTUAREN ESPARRUAN (BITARTEKARITZA ELEKTRONIKOKO SISTEMA) ZERBITZU JAKINAK JASOTZEKO LANKIDETZA - HITZARMENAREN BURUZKOA.**

"Jarraian presidente jaunak hartu du hitza, eta BISCAYTIK Fundazioak egindako proposamen honen berri eman die kideei: BISCAYTIK Proiektuaren esparruan (Bitartekaritza Elektronikoko Sistema) Zerbitzu jakinak jasotzeko lankidetza-hitzarmen bat sinatzea.

Hitzarmen honen xedea sinatzaileen artean herritarrei buruzko datuak administrazio trukaketa elektroniko bidez gauzatzeko termino eta baldintza orokorrak ezartzea eta Bizkaiko Foru Aldundiaren bitartez egingo den Arratiako Udalen Mankomunitatea erakundearen eta gainerako administrazio publikoen arteko datuen bitartekotza transmisioa gauzatzeko termino eta baldintza orokorrak ezartzea da.

Hitzarmen honen helburua

**13º.- ASUNTO: APROBACIÓN SI PROCEDE DEL CONVENIO ESPECÍFICO PARA LA ADOPCIÓN DE DETERMINADOS SERVICIOS (SISTEMA DE INTERMEDIACIÓN ELECTRÓNICA) EN EL MARCO DEL PROYECTO BISCAYTIK.**

"Acto seguido toma la palabra el Sr. Presidente quien informa a los Vocales de la propuesta formulada desde la Fundación BISCAYTIK para la firma de un "Convenio Específicio para la adopción de determinados servicios (Sistema de Intermediación Electrónica) en el marco del Proyecto BISCAYTIK

El convenio tiene por objeto establecer los términos y las condiciones generales para el intercambio electrónico administrativo de datos de la ciudadanía entre las partes firmantes así como para la transmisión intermediada de datos, a través de la Diputación Foral de Bizkaia, Arratiako Udalen Mankomunitatea y el resto de Administraciones Públicas.

La finalidad perseguida con el

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

administrazio prozeduretan interesa duten pertsonek edozein Administrazio Publikoek sortutako dokumentuak entregatu behar ez izateko edo beste Administrazio Publikoren batean aurretik aurkeztutako dokumentuak berriz ere aurkeztu behar ez izateko duten eskubidea erabiltzea erraztea da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritako aurreikuspenekin bat eginez.

Administrazio eskatzailearen eskumeneko prozedura eta jarduketak izapidetu eta ebazteko pertsona interesatuei eskatzen zaizkien horiek bakarrik trukatu ahal izango dituzte datuak, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiari jarraiki.

Hitzarmen honen barne daude Arratiako Udalen Mankomunitatea erakundearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko datuen transmisio elektronikoko zerbitzuak eta Bizkaiko Foru Aldundiak aipatutako Arratiako Udalen Mankomunitatea erakundearen eta gainerako Administrazio Publikoen artean egiten dituzten datuen transmisioetan dituen bitartekaritza zerbitzuak.

Datuak transmititzeko zerbitzuak hitzarmen honetako adierazitako Bizkaiko Foru Aldundiaren irtenbide teknologikoa erabiliz emango dira, baita hauekin bat eginez ere: 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, administrazio elektronikoaren esparruan elkarreragingarritasun eskema nazionala arautzen duena; Administrazio Publikoen Estatuko Idazkaritzaren 2012ko ekainaren 28ko ebazpena, datuen bitartekaritzako protokoloen elkarreragingarritasunaren arau teknikoa onesten duena.

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEko Gobernu Batzarrak aurrez esandakoaren jakitun da, eta eztabaidatu ostean, gaia bozkatu dute, eta bertan dauden GEHIENGO OSOZ, Miguel Angel Etxebarria, Gurutze

presente acuerdo es la de facilitar el derecho de las personas interesadas en los procedimientos administrativos a no aportar documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración Pública o que ya hayan sido aportados anteriormente por las mismas ante cualquier Administración Pública, de acuerdo con las previsiones establecidas en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

El intercambio de datos estará limitado estrictamente a aquellos que, de acuerdo con la normativa reguladora aplicable en cada caso, sean requeridos a las personas interesadas para la tramitación y resolución de los procedimientos y actuaciones de la competencia de la Administración requirente.

El convenio comprende los servicios de transmisión electrónica de datos entre Arratiako Udalen Mankomunitatea y la Diputación Foral de Bizkaia y los de intermediación de la Diputación Foral de Bizkaia en las transmisiones de datos entre Arratiako Udalen Mankomunitatea y las restantes Administraciones Públicas.

Los servicios de transmisión de datos se prestarán por medio de la solución tecnológica de la Diputación Foral de Bizkaia prevista en el convenio y de acuerdo con las condiciones técnicas y funcionales comprendidas en el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, así como en la Resolución de 28 de junio de 2012, de la Secretaría de Estado de Administraciones Públicas, por la que se aprueba la Norma Técnica de Interoperabilidad de Protocolos de intermediación de datos.

La Junta de Gobierno de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, quedó debidamente enterada de todo lo anteriormente expuesto, tras un debate, sometido el asunto a votación y por MAYORÍA ABSOLUTA de los Vocales

Gobernu Batzarraren agirietako gordetako paper berezia – Papel reservado para las actas de la sesiones de la Junta de Gobierno

Etxebarria, Monasterio, Alberto Etxebarria, Sorriketa jna./and. kideen aldeko bost botoekin (5) eta Intxaurtza, Elejabarrieta and. kideen bi abstentzioekin (2), hau erabaki du:

1.- BISCAYTIK Proiektuaren esparruan (Bitartekaritza Elektronikoko Sistema) Zerbitzu jakinak jasotzeko lankidetza-hitzarmenaren artikuluak onestea, aurkeztutako proposamenarekin bat etorriz.

2º- Ziurtagiri bidez erabaki honen berri ematea BISCAYTIK Fundazioari.-"

presentes, con cinco (5) votos a favor de los Vocales Sres./Sras. Miguel Angel Etxebarria, Gurutze Etxebarria, Monasterio, Alberto Etxebarria, Sorriketa, jna./and.; y dos (2) abstenciones de las Vocales Sras. Intxaurtza, Elejabarrieta; acordó:

1º.- Aprobar el articulado del "Convenio Especíificio para la adopción de determinados servicios (Sistema de Intermediación Electrónica) en el marco del Proyecto BISCAYTIK, todo ello de conformidad con la propuesta presentada.

2º.- Dése cuenta certificada del presente Acuerdo a la Fundación BISCAYTIK.-"

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, bi mila eta hamazazpiko azaroaren hogeita bederatzian goizeko bederatziak eta hogeita hamar minutu diranean, Presidente jaunak batzarra amaitutzat jo du, eta nik, bait. Idazkari-kontuhartzaileak, hori guztia ziurtatu dut.-

Y no habiendo más asuntos de que tratar y siendo las nueve horas y treinta minutos del día veintinueve de noviembre de dos mil diecisiete, el Sr. Presidente dió por finalizada la sesión, de lo que yo, el Secretario-Interventor acctal. doy fé.-